



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

UME TXIKIAREN GAITASUNAK:

0-1 urteko umetxo baten arretaren behaketa jolas librean

Egilea: Jone Sagastui Aguayo

Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre

Leioan, 2017ko maiatzaren 28an

Aurkibidea

1. Sarrera	1
1.1. Lanaren testuingurua	1
1.2. Lanaren helburu orokorra	5
2. Metodologia	6
2.1. Diseinua	6
2.2. Partehartzaileak.....	7
2.3. Tresnak	7
2.4. Prozedura	8
2.5. Erregistroa	8
3. Emaitzak	10
4. Emaitzen eztabaida	14
5. Ondorioak	17
5.1. Lanarekin lotutakoa.....	17
5.2. Pertsonalak.....	21
6. Erreferentziak	22
7. Eranskinak	24
1. eranskina. Eskuz egindako behaketa taulen eredua: 2. eguna (2017/01/10)	24
2. eranskina. Egunez-eguneko behaketa taulak: ekintza eta arretaren analisia	25

UME TXIKIAREN GAITASUNAK:

0-1 urteko umetxo baten arretaren behaketa jolas librean

Jone Sagastui Aguayo

UPV/EHU

Laburpena: Azken urteotan Haur Hezkuntzak gure gizartean gero eta modu orokorragoan ematen ari den ume txikien eskolaratze goiztiarrari era aiposean erantzuteko erronkarekin egin du topo. Behar horren aurrean esku-hartzeko ardura duten hezitzaileek ume txikiaren gaitasunak ezagutzea ezinbestekoa dute umetxoen garapen onena bermatzeko. Gradu Amaierako Lan honen helburua ume txikien ahalmenak ezagutzea da, jaiotzetik mundua ezagutzeko grina duten izaki aktiboak direla baieztatuz. Lanaren abiapuntua, bizitzako lehen urtean dagoen umetxo baten jolas librearen behaketa izango da, berak hasitako jardueretik erakusten duen arreta delarik kontuan hartu den aztergai zehatza. Aurrera eramandako azterketa sakon honen emaitzek, ume txikien ahalmenak errespetatu eta haien gaitasunak behar den bezala sustatuz umetxoen garapen harmoniatsuen alde egingo dela egiaztatzen eramango gaituzte.

Gako hitzak: Arreta, jolas librea, gaitasuna, umetxoa, Haur Hezkuntza lehenengo zikloa.

Resumen: La Educación Infantil se encuentra ante el reto de responder de manera adecuada a la escolarización temprana, una realidad cada vez más generalizada en nuestra sociedad. Los educadores y educadoras deben ser conocedores de las capacidades propias del bebé para asegurar su desarrollo óptimo. El objetivo de mi trabajo de fin de grado es documentar las competencias de los niños pequeños, seres activos desde su nacimiento y dotados de una gran inquietud por descubrir su entorno. El trabajo se centra en la observación del juego libre de un bebé en su primer año de vida, y más concretamente en el estudio de su atención hacia las actividades autoinducidas. Los resultados indican que si respetamos las capacidades propias de los niños pequeños y potenciamos sus competencias estaremos trabajando a favor de un desarrollo infantil armónico.

Palabras clave: Atención, juego libre, capacidad, bebé, primer ciclo de Educación Infantil.

Abstract: The Child Education sector is expected to provide a quality response to early childhood schooling, an increasingly generalized trend in our societies. Education providers need to be knowledgeable of children's capabilities in the early months so as to ensure the optimal development of infants and toddlers. Children are active human beings from birth, with a distinct interest in exploring their environments. Thus, the main objective of my graduation thesis is to document children's competencies in the early months of life. My research focuses on the observation of an infant's free play during her first year of life, and more specifically on her attention to self-induced activities. The analysis of my findings indicate that by respecting children's capabilities and by appropriately fostering their competencies in the first months of life we will be contributing to children's harmonious development in infancy and early childhood.

Key words: Attention, free play, capacity, baby, first cycle of Early Childhood Education.

1. Sarrera

1.1. Lanaren testuingurua

Lan honen abiapuntua finkatzeko, haurtzaroaren lehenengo urteen garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da. Umeen berezko gaitasunetan sinetsi eta haien garapen naturalaren alde egin zuen Emmi Pikler-en (1979) hitzetara jo ezkeror “ume txiki eta umetxoaren hezkuntzaren eragina bere bizitza osoan zehar luzatzen denaz kontziente izan behar dugu” (7. or). Are gehiago, umearen lehenengo urteetako garapenak, etorkizuneko bizitza baldintzatuko du. Izan ere, haurtzaroa espeziearen prototipoa osatzeko adin tarte gisa ulertuta (Herrán, 2005), bizitzako aldi horretako esperientziak ondorengo urteetan egin beharreko ikasketen oinarri izango dira, ezinbestean.

Idea hau ulertzeko, umetxoak bere inguruneko errealitatea deskubritzeko duen senaz jabetzea oinarrizkoa dugu, hau da, jaiotzetik munduan eragiteko jarrera duela. Hain zuzen ere, haur-psikologian aditua izan zen Henri Wallonen aburuz, “jario berrien mugimenduak muskulu-energiaren deskarga ez-eraginkor hutsak baino, bere premiek, ongizate- edo nahiez-egoerek eragiten dituzten astintzeak dira, umearen egoeraren seinaleak, azken batean, ingurunetik beraren aldeko esku-hartzea sortarazten dutenak” (129. or). Nolabait esateko, umetxoak bere barne sentitzen duena adierazten du horien bidez; hortaz, berarentzat eraginkorrak diren lehen keinuak adierazpenerako joera duten horiek izango dira, jarrera afektiboa besterik ez dutenak baina, aldi berean, umearen barne-emozioekin harreman estua erakusten dutenak: emozioen aldi murgilduta egongo da lehen hilabeteetan zehar, bere sentsibilitateaz gain, ekintza eta ezagutza modu bat eraikitzen joango delarik (Wallon, 1980).

Aldi berean, subjektibotasun afektiboko aldi horretan murgilduta dagoela, ume txikia hurrengo fasea iragarri egiten duten ekintzetan parte-hartzen hasten dela ikusiko da, jarduera sentsorimotorraren hastapenak izango direnak. Wallon-ek (1980) azaldu zuen bezala, “hasieran izaera subjektiboa eta afektiboa mantenduko duten arren, umeak egindako mugimendu eta haren efektuen arteko lotura gero eta estuagoa adieraziko dute bere ekintzek” (129. or). Umeak bere sentsazioak adieraztean kanpoko erantzun bat duenaz gero eta kontzienteago ariko da bihurtzen. Ume txiki batzuen kasuan, bere lehenengo uneetan, jarduera sentsorimotorra lehertzen dela ikus

daiteke, berarengan izugarrizko premia sortzen duela dirudi, Pavlov-ek *orientazioko* eta *ikerketarako* sen edo *erreflexu* moduan deitu zituenak antzeman daitezke haiengan. Une horretan, beraz, erabat murgilduko da aldi sentoriorrean, inguruneke pertsona, objektu eta espazioak deskubritzera eramango dituen ekintzak bere bizitzaren protagonista bihurtuz.

Azken batean, aipatutako garapenaren fase hauek argi uzten dute umetxoa izaki aktiboa dela jaiotzetik, interes eta ekimenez betea, bere ingurunea ezagutzeko berezko jarrera duelarik (Tardos eta Szanto, 2000).

Are gehiago, bere kontura jardun eta libreki aritzeko aukera izan duen ume batek, bizitzarako ezinbestekoak izango dituen gaitasunak modu autonomoan garatu ahal izango ditu. Izan ere, jaiotzetik bertatik hasten da umetxoa bere autonomia garatzen: lehen autonomia-esperientziak umea jaioberria dela abiatzen dira eta ume txikiak berak abiatutako jarduera autonomo horretatik edaten du alderdi psikomotor, afektibo eta kognitiboan hainbat lorpen erdiesteko; lorpen autonomoen multzo hori errespetatzen bada, helduaroko autonomiaren zimendua izango da (Falk, 2009).

Hori horrela izanik, haren garapen faseak modu autonomoan betetzearen garrantzia azpimarratzekoa da, Tardos eta Szanto-k (2000) adierazitako moduan, “subjektu batek nahita abiatutako eta modu aktiboan aurrera eramandako ekintzek berarentzat berehalako ondorio askoz aberasgarriagoak izango baitituzte inposatutako ekimenek baino” (1-2. or).

Esandako guztia kontuan harturik, ume txikiaren jaiotzetiko gaitasunez ohartzea eta horiek ahalik eta modu naturalenean garatzearen alde egitea izan beharko litzateke haren inguruko helduen erantzukizuna. Halaber, hezitzaile moduan errealitate honetaz kontziente izatea oinarritzekoa da, batez ere umeak gero eta adin goiztiaragoan eskolaratzen diren gizartean bizi garela ohartuta. Etorkizuneko autonomia eta ezagutza ororen hastapenak gertatuko diren aldia dela kontuan hartuta, gure esku-hartzeko modua ahalik eta egokiena bihurtzearen aldeko apustua egin behar dugu.

Hori dela eta, nire lan honen abiapuntua bizitzako momentu honetan dagoen umetxo baten jolas librean ematen diren egoera anitzen behaketa sakona burutzea izan

da. Ondoren, hura bideratu ostean aurkitutako alderdi interesgarri eta adierazkorrenak aurkeztuko dira.

Konkretuki, umearen egunerokotasunaren parte diren jolas libreko momentuetan egindako behaketa hauetan, ume txikiak autonomoki abiatzen dituen jarduera sensoriomotorretan erakusten duen arreta izan da hurbiletik eta modu sakonean aztertutakoa. Beraz, testuinguru zehatz batean eta material, espazio eta hezitzaile konkretu batzuen eraginpean umetxoak abiatzen dituen jarduera motak eta horiekiko erakusten duen arreta behatzea izan da lanaren oinarria, horri esker ondorengo hausnarketa egiteko eta ondorioak ateratzeko aukera izanik.

Behaketaren protagonista izan den umetxoaren testuingurua haren jarduera motetan eragina izan duenez eta, nolabait, bere arreta graduan erabakigarria dela kontuan harturik, hau definitzea premiazkoa da. Hain zuzen, grabaketak burutu diren gelaren ezaugarriei erreparatuta, bertan, bi hezitzaile dira gelako 0-1 urte tarteko 8 umeen zaintza eta esku-hartzeen arduradun. Aintzat hartzekoa da, gainera, Pikler-Lóczy metodologiaren jarraitzaile den zentro bat dela, bertako hezitzaileak formakuntza etengabea daudelarik umetxoei ahalik eta testuinguru aproposena eskaintzeko eta haien esku-hartzeak kalitatezkoak izateko helburuarekin.

Gelako antolakuntzari dagokionez, umeen jarduera sensoriomotorraren pizgarri diren materialak jartzen dira euren esku, dauden adinean bete beharreko garapen fase desberdinak agertzearen alde egingo dutenak. Horrela, tamaina anitzetako poteak, metalezko plater eta otzarak, kateak, zumezko pilotak, kolore eta forma desberdinetako txintxirrinak, etab. dituzte haiengandik gertu.

Horrez gain, lurrazal gogorreko espazio zabal batean daudela aipatzekoa da, hesi batzuekin osatutako beste gune itxi bat bereizten dela. Horrela, ume bakoitza bere adinaren eta haren mugitzeko trebetasunen arabera kokatzen dute, oraindik lekualdatzen ez diren umetxoak hesien barruan geratuz.

Gelako hezitzaileek errespetuzko jarrera erakusten dute bertako umeekiko. Bakoitzaren jarduera hurbiletik behatu eta gertatzen diren egoera konkretuen aurrean besterik ez dute esku-hartzen, hala nola, umetxoak ohera sartzeko, jatorduetan bakoitzari dagokion janaria emateko edo pixoihala aldatzeko. Beraz, zaintza momentuak

dira haien esku-hartze zuzena eskatzen duten une bakarrak. Bestela, umetxoengandik gertu agertzen dira, kasuan kasuko zeharkako esku-hartzeren bat aurrera eramanez, materiala jasotzea, adibidez.

Espazio horretan umetxoak bere jardueretik erakusten duen arreta aztertzerako orduan, Lóczy institutuak 1990. urtean egindako dokumental batean aurkezten den sailkapena jarraituko da, non jolasten ari diren umeen arretaren azterketa sakon bat aurrera eraman zuten Anna Tardos eta Geneviève Appell-ek arretaren lau momentu garrantzitsuenak definitu zituzten. Hauek dira lau horien ezaugarriak aipagarrienak:

- *Banatutako arreta:* arreta mota hau, umea zerbaiten zain edo zerbaitengatik kezkatutik dagoenean ematen da. Badirudi umetxoak itxaroten ari den edo kezkatzen dion horren zain egotea besterik ez duela egin nahi. Plazerrezko momentua da hura, non ume txikia aske eta bai berari gertatzen zaionarekiko zein kanpotik datorrenarekiko harkor agertzen den.
- *Arreta iraunkorra:* umeak ekintza zehatz bat aurrera eramaten du denbora luzez, baina, aldi berean, bere ingurunean ematen diren gertaeretara adi dago. Halakoren batek bera garatzen ari den jarduera moztu dezake edo, bestela, alde batera utziko du, kasuak kasu. Dagoeneko trebatuak dituen keinu edo ekintza sekuentzia konkretu batzuk errepikatzen ditu denbora horretan zehar. Aurrera eramaten dituen mugimendu horien prezisioa hobetzeko helburua duten aldaketa txikiak ere egiten ditu ekintza burutu bitartean. Hau da, egiten ari dena dagoeneko ezagutzen du, baina hura hobetzen saiatzen eta bere jakintza aztertzen ari dela dirudi.
- *Arreta kontzentratua:* umea zeharo kontzentratutik dago garatzen ari den horretan. Berarentzat berriak diren gertaerak deskubritzen eta ekintzen efektuak aztertzen ari dela dirudi. Bere ekintzetan guztiz murgildurik dagoela aipatzekoa da eta, aldi berean, bere adimena martxan dagoela azter daiteke. Badirudi esperimintatzen, jakintza berria integratzen eta trebezia berriak antolatzen ari dela.
- *Atsedena:* jolasekin dituen interakzio momentuak lasaitasun uneekin tartekatzen dira. Umetxoa ezer ez egiten dagoela dirudi, arretarik jarri gabe edo bere arreta beste non edo non dagoela. Horrekin batera, mugitzen eta lekualdatzen ari den momentuak ere eman daitezke. Une hauek ere badute haien helburua.

1.2. Lanaren helburu orokorra

Umetxoaren berezko gaitasunak aztertzeke nahian, behaketa sistematiko bat jarriko da martxan, lan honen abiapuntua delarik. Gauzak horrela, *umearen jaiotzetiko ikertzeke grina* asetzeko aukera eskaintzen duen testuinguru batean burututako jarduera aztertuko da hurbiletik. Testuinguru egoki horrek, umei bizipen aberasgarriak izateko aukera ematen diela frogatu nahi izango da, garapen harmoniatsu baten alde. Aurrerago xehetasunez azalduko den bezala, Pikler-Lóczy metodologiak proposatzen dituen oinarriak kontuan hartzen dituen errealitate batean garatu da lanaren abiapuntu den behaketa. Beraz, hezkuntza eredu horrek aurkezten dituen jarduera motak benetan agertzen diren eta ume txikiaren garapenaren onerako diren aztertuko da.

Horren bitartez, aldi berean, lan honen xede nagusia den *Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaren garrantzia* azpimarratuko da. Izan ere, azken urteetan aldaketa garrantzitsu bat gertatzen ari da gure gizartean: gurasoek haien umeak gero eta adin goiztiarragoan uzten dituzte beste pertsonen eskura, 0-3 urte bitarteko ume txikien arretarako entitateak sortzera eraman gaituena (González eta Tapia, 2009). Hortaz, hain txikitatik eskolaratzen diren umetxoei kalitatezko heziketa eta giro aproposa eskaintzearen premia azpimarratzekoa da, bestela ez baitituzte haien gaitasunak guztiz garatzeko aukera izango.

Hori lortzeko eta umetxoaren gaitasunez ohartzeko, jolas libreko momentuak hurbiletik behatzea ezinbestekoa izango da, bere egunerokotasunean ematen diren egoerak bereiztuz. Horrela, lehen urtean zehar munduaren gaineko ekintza garrantzitsuena den *jarduera sentzoriomotorra* aztertu eta horien *berezitasunak ondorioztatzea* izango da ikerketa xume honekin betetzea espero den beste helburu bat.

Hala ere, jarduera sentzoriomotorraz dagoeneko asko ikertu dela kontuan harturik, aurretik aipatutako moduan, hau aztertzeke momentuan kontuan izango den aztergai garrantzitsuena arreta izango da. Izan ere, umetxoa bere jardueran murgilduta dagoen momentuan horrekiko kontzentrazio osoa erakusten du, une bakoitzean duen interesen, materialaren erakargarritasunaren edo jardueraren ezaugarri zehatzen araberakoa izango delarik hori. Hortaz, behaketa lan honen helburu espezifikoa umetxoaren *arreta momentuak definitu* eta horien *berezitasunak aztertzea* izango da, haurtzaroari buruzko ekarpen berri bat egiteke asmoz.

Horrela, bere jarduerarekiko duen kontzentrazioan eragina duten kanpoko eragileak zeintzuk diren, umetxoak bere egitekoarekiko erakusten duen interesa zeren menpe dagoen eta bere arreta maila baldintzatzen duten faktoreak zehazteko helburua betetzearen aldeko behaketa izango da lan honen oinarri eta aterako diren ondorioen jatorri.

2. Metodologia

Ondorengo ataletan zehatzago azalduko denez, Behaketan Oinarritutako Metodologiak (Anguera, 2003) proposatzen duen diseinuen sailkapenaren arabera, diseinu *idiografiko* bat aurrera eramango da, ume bakar baten jarrera behatzen delako, *multidimentsionala*, aztergai anitz kontuan hartzen direlako eta *denboran zeharrekoa*, egun desberdinetan egindako behaketak aztertuko direlako.

2.1. Diseinua

Ondoren aurkeztuko den lanak behaketan oinarritutako metodologia jarraitzen du. Hain zuzen ere, egoera erreal baten behaketa sistematikoa abiapuntutzat hartuz, lehen haurtzaroko ume txikien garapena aztertu eta faktore zehatzak ikertu ahal izan dira.

Aurretik aipatutako helburuak bete nahian, ume txikiak autonomiaz aritu daitezkeen testuinguru bat hautatu eta bertako ume taldearen jolas librea behatzea izan dira emandako lehenengo urratsak, horretan ematen den jarduera sentensoriomotorraren berezitasunak hurbiletik behatu eta umetxoaren arreta mailen inguruko datu esanguratsuak atera nahian.

Esan beharra dago, gainera, behaketak denboran zehar luzatu direla, hiru astetan zehar egin baitira lanaren oinarri diren grabaketak. Horren arrazoi garrantzitsuena, egun desberdinetako gertakariak umetxoaren jardueran duten eragina aztertu eta haren bilakaeraren berri eman nahi izatea izan da.

2.2. Partehartzaileak

Ikerketa txiki hau aurrera eramateko, Haurreskola Partzuergoaren parte den Basurtuko haur-eskolako urte bateko ume talde bat izan da behatutakoa. Esan beharra dago, grabaketak egin aurretik bai Partzuergoaren oniritzia zein gelako umetxoan gurasoen baimenak jaso zirela, Datu Pertsonalen Babeserako Legea (15/1999 Lege Organikoa, LOPD) errespetatuz.

Grabaketak egin ziren taldea zortzi umez osatuta zegoen, zazpi hilabete eta urtebeteko adin tartean zeudenak. Hala ere, esan beharra dago ikerketa gauzatu ahal izateko umetxo bakar baten jarduera behatu dela, kasu batean zentratuz informazio zehatzagoa eta are aberasgarriagoa lortuko zelakoan.

2.3. Tresnak

Behaketa lan honetarako erabili den tresna garrantzitsuena grabaketak izan dira. Konkretuki, haur-eskolako umetxoaren jardueraren erregistro bat egin ahal izateko, bertako eguneroko errutinak eta umetxoan jolas momentuak grabatu behar izan ziren aurretik.

Hortaz, ume bakarraren behaketa aurrera eraman zen asteetan zehar, haur-eskolan egon bitartean ume horren jardueraren grabaketak egin ziren. Horrez gain, egun bakoitzean ematen ziren egoera konkretuak gorde nahian, horien idatzizko erregistro bat egin zen, grabaketak aztertzerako orduan horiek gogoratu eta ondorioak atera aurretik gertakari emankor horiek kontuan hartu nahian.

Behin behaketa asteak bukatuta, grabaketak sistematizatzea izan zen hurrengo urratsa, lehenik, eskuz egin zena (1. eranskina). Umetxoaren jardueraren analisia egiteko, 12 eguneko grabaketak aztertu behar izan ziren, bai ekintza motak bereiziz zein bakoitzarekiko erakusten zuen arreta momentuak desberdinduz. Ondoren, egun guztietako taulak batu ziren, jarduera eta arreta motaren arabera sailkapen desberdinak eginez.

Azken batean, hartutako datu guztiak modu adierazkorrean irudikatu ahal izateko, grafikoak erabili dira (1., 2., 3., 4. eta 5. grafikoak), hartutako informazio guztiaren bilduma sortu delarik.

2.4. Prozedura

Ikerketa lan honek egoera enpiriko batean oinarritutako behaketa bat izan duenez abiapuntu, oso prozedura zehatza jarraitzea ezinbestekoa izan da. Hasteko, umetxoan jarduera behatu eta grabatu nahian, hiru astetan zehar egunean bi orduz aztertu zen Basurtuko haur-eskolako urte bateko gelako egunerokotasuna.

Hasiera batean, taldea osatzen zuten zortzi umeen jolas librearen behaketa egiten hasi zen, ume guztien jardueraren grabaketak hartuz; hala ere, lanaren helburua taldeko umetxo bakar baten kasua aztertzea zenez, lanerako interesgarriak eta emankorrak izan zitezkeen ekintza eta jarduerak egiten zituen ume bat hurbiletik behatzeko erabakia hartu zen. Hain zuzen ere, grabaketak egindako momentuan bederatziz hilabete zituen neska bat izan da lan honetan aurkeztutako ikerketaren partaidea.

Horrekin batera, grabaketan egiten hamabost egun eman ziren arren eta haur-eskolan egunean bi orduz egonda ere, faktore desberdinen ondorioz (partehartzailea haur-eskolara etorri ez izana edo larritasun handiko egoeran egon zen goizean grabaketak ez hartzea erabaki izana), hamabi egunekoa da azkenean hartutako lagina. Egun bakoitzean hartutako grabaketen alde erabilgarria ordubetekoa da, batez-beste.

Lagina aztertzerako orduan, bi aztergai desberdin hartu dira kontuan. Batetik, grabaketan zehar umetxoak egindako jarduera ezberdinak aztertu dira, lau multzotan taldekaturik: *jarduera sentzoriomotorra, lekualdatze edo mugimendu momentuak, zaintza uneak eta ingurunea behatzen* ematen duen denbora.

Beste alde batetik, lan honen aztergai zehatzena den arreta ere hurbiletik behatu da. Umetxoaren ekintza unean artean, jarduera sentzoriomotorra aurrera eramaten eta ingurunea behatzen ematen duen denboran zehar aztertu da bere arreta. Arretaren analisia egiterakoan, hortaz, beste lau maila ezberdintzen dira: *banatutako arreta, arreta iraunkorra, arreta kontzentratua* eta *atseden momentuak* (Tardos eta Appell, 1990). Azken batean, umetxoaren unean-unean arreta maila definitzeaz gain, arreta eta jardueren ezaugarrien arteko harremana finkatzea izan da lan honen helburua.


2.5. Erregistroa

12 egunetan hartutako laginaren eskuzko erregistroa egin ostean (1. eranskina), datuak sistematizatu eta horien erregistro zehatza aurkezteko moduan adierazi da

grafiko desberdinen laguntzaz. Egunez egun, aurretik aipatutako bi aztergaiak aztertu dira: ekintza eta arreta. Horretarako, denbora unitateetan sailkatu dira egun bakoitzean hartutako gehienez ordubete irauten duten grabaketak, 1. grafikoan ikusten den bezala.

Aztertutako bi aztergaiak bata bestearen gainean adierazteari esker, haien arteko harremana oso modu bisualean agertzen da; izan ere, esandako moduan, arreta ekintzaren bi unetan aztertu da: jarduera sensoriomotorra eta ingurunea behatzen dagoen momentuetan. Horrela, ekintzaren momentu horietako bakoitzean zein motatako arreta erakusten duen eta zenbat irauten duen argi ikus daiteke.

Egun bakoitzeko grafikoaren berezitasunei esker, umetxoaren eguneko egoeraren arabera jarduera mota batzuk ala besteak nagusitzen direla azter daiteke (ikusi 2. eranskina).



1. grafikoa. Egunez-eguneko umetxoaren ekintza eta arreta: 1. eguna (2017/01/09)

3. Emaitzak

Hamabi egunetako datuekin aztergai desberdinen *frekuentziaren* azterketa egin da. Hau da, erregistroa osatzen duten egunak grafiko desberdinetan jaso ostean, datu guztien batuketa egin eta bai ekintza zein arretaren behaketaren emaitza-taula osoa bete da. Horrela, grabaketa osoak denbora unitate desberdinetan bereizi dira eta aztergai edo kategoria bakoitzak minutu edo ordu kopuru zehatz bat izan du. Hartutako datu horiek guztiak, hain zuzen, ondorengo taulan agertzen zaizkigu laburtuta:

1. taula

Ekintza eta arretaren analisiaren emaitza: denboraren azken zenbaketa

EGUNA	EKINTZA					ARRETA				
	Jarduera	Behatzen	Lekualdatzeak	Zaintzak	GUZTIRA	Banatura	Iraunkorra	Kontzentratua	Atsedena	GUZTIRA
1	9'	5'	22'	5'	41'	2'	3' 45"	3' 15"	4' 30"	13' 30"
2	23' 45"	3' 45"	19' 25"	10' 45"	57' 40"	15'	12'	4' 30"	4' 50"	36' 20"
3	29'	8' 20"	15'	7' 40"	60'	14'	16' 40"	6' 40"	1' 40"	39'
4	30' 30"	6' 30"	21' 30"	1' 30"	60'	5' 45"	17' 15"	8'	7'	38'
5	4' 45"	5' 45"	21'	28' 30"	60'	0' 45"	1'	3'	5' 45"	10' 30"
6	39'	10' 30"	10' 30"	-	60'	12'	15' 20"	6' 40"	16' 10"	50' 10"
7	28' 55"	1' 30"	19' 55"	9' 40"	60'	8' 30"	12' 50"	5' 30"	3' 35"	30' 25"
8	19'	6'	5'	30'	60'	7' 15"	3' 30"	6'	7' 45"	24' 30"
9	52' 40"	-	2' 40"	4' 40"	60'	20'	17'	5' 30"	10' 10"	52' 40"
10	32'	16' 30"	7' 30"	4'	60'	13'	17'	6' 45"	12'	48' 45"
11	24' 30"	5'	1' 30"	6' 30"	37' 30"	9' 45"	10' 30"	2' 30"	5' 45"	28' 30"
12	14' 30"	3' 30"	4' 30"	11' 45"	34' 15"	2' 45"	6' 30"	4' 15"	5' 15"	18' 45"
Guztira	5h 7' 35"	1h 12' 20"	2h 30' 30"	2h	10h 50' 25"	1h 50' 45"	2h 13' 20"	1h 2' 35"	1h 24' 25"	6h 31' 5"

Taulan argi ikus daitekeen moduan, grabaketak 12 egunetan zehar egin ziren eta, guztira, 10 ordu 50 minutu eta 25 segundo aztertu dira, horiek ekintza kategoria ezberdinetan sailkatu direlarik. Beste alde batetik, grabaketa osoaren parte batean arreta aztertu da, grabaketa osoak 6 ordu 31 minutu eta 5 segundoko guztizko denboran zehar izanik arreta aztergai.

Horrekin batera, aztergai bien kategoria zehatzen zenbaketa ere egin da, egun bakoitzean grabatutako tarte osoa lau kategoriatan zatikatu delarik eta, ondoren, kategoria bakoitzaren zenbaketa orokorra eginez behealdean.


Umetxoaren jarduera behatu, sistematizatu eta erregistratu ondoren, analisi horretan kontuan hartu diren bi aztergaien inguruko emaitzak adieraztea izan da hurrengo urratsa. Horretarako, aurkeztu berri den taulan jasotako denbora unitateen

zenbaketak, euren arteko konparaketa grafikoetan jarri dira. Modu honetan, bai ekintza zein arreta moten barnean hartu diren maila desberdinen arteko harremana ikusten da. Analisi zehatz hori, gainera, laginaren egun guztiak bateratuz zein egunez egun egin da, bi motatako grafikoak landu direlarik.

Ekintzaren analisiari dagokionez, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala, *jarduera sentsorimotorra* da behaketen partaidearen ekintza ohikoena. Aztertutako denboraren %47a, guztiaren ia erdia, hortaz, bere inguruko objektuak eta materiala aztertzen, ukitzen, deskubritzen eman du.


Bestelako ekintzei dagokienez, *lekualdatze edo mugimenduak* burutzen eman du jarduera sentsorimotorraren ondoren denbora gehien, guztizkoaren %23a, hain zuzen. Horren atzetik doaz *zaintza momentuak*, aztertutako denbora osotik bi ordu izan direlarik jatorduek, lo-uneek edo pixoihala aldatzeko tarteek hartutako denbora (%19a).

Azkenik, ekintzen artean agertzen ziren *lasaitasun momentuetan* eman du denbora gutxien, ingurunea behatzeko tarteek, guztira, ordu eta laurdeneko atala hartuz, denbora osoaren %11, konkretuki.



2. grafikoa. Egun guztietako ekintza moten banaketa

Egun guztien batuketa orokorra alde batera utziz, ondorengo grafikoak egunez-eguneko analisi zehatza ematen digu. Hain zuzen ere, asteko egun bakoitzean egindako grabaketa tarteak ekintza mota ezberdinetan sailkatzen dira, egunen arteko ezberdintasunak aztertzeko aukera dugularik.




3. grafikoa. Egunez-eguneko ekintza moten banaketa

Ekintza behin aztertuta, *arretaren* inguruan ateratako emaitzei dagokienez, kasu honetan ere egun guztien zenbaketa egin da alde batetik eta, bestetik, egunez eguneko analisia aurkezten duen grafikoa hartu da kontuan.


Egun guztien zenbaketari erreparatuta, *arreta iraunkorra* dugu tarterik handiena hartzen duen kategoria. Hain zuzen ere, arreta aztergaia izan den grabaketen sei ordu eta erdien herena eman du umetxoak iraunkortzat hartzen den arreta motan murgilduta, denbora osoaren %34a, konkretuki.

Horren atzetik datoz *banatutako arreta* izan duen eta *atseden momentu* gisa hartu diren denbora unitateak, bien artean guztizkoaren erdia hartzen dutelarik. Azkenik, *kontzentratutako momentuek* ordubete inguru batzen dute guztira, bere jardueran guztiz murgilduta dagoen uneez, hortaz, tarte osoaren seirena hartzen dutelarik (%16a).



4. grafikoa. Arretaren analisiaren emaitza. Egun guztien zenbaketa

Egunez eguneko arreta aurkezten duen irudian, kontuan izan beharrekoa da aztergai hau jarduera sentensoriomotorra aurrera eramaten eta ingurunea behatzen eman dituen uneetan besterik ez dela aztertu. Horregatik, egun bakoitzaren grafikoaren zutabeek guztira batzen duten denbora luzeagoa izatea edo, aitzitik, tarte txikiagoa adieraztea umetxoaren egunaren araberakoa izango da.



5. grafikoa. Egunez-eguneko arretaren banaketa

4. Emaitzen eztabaida

Aurreko atalean aurkeztutako grafikoek, behatutako egoeran kontuan hartu diren bi aztergaien –ekintza eta arretaren– inguruan atera diren emaitzak islatzen dizkigute. Ondoren, horien esanahia landuko da, umetxoaren jardueraren eta arretaren berezitasunak ondorioztatzeko bidean.

Ekintzari dagozkien emaitzak hurbiletik aztertuz, oso informazio esanguratsua atera daiteke. Hasteko, jarduera sensoriomotorrak behaketa guztiaren erdia inguru hartzen duela ikusi da, baina, horrekin batera, tarte osoaren laurdena lekualdatzeek hartu dute.

Beraz, grabaketen denbora osoaren hiru laurden –%70– *libreki aurrera eraman ditzakeen ekintzak* egiten ikusi dugu partaideak. Umetxoak berak hasten dituen jarduerak eta baita mugimenduek ere badute umearen autonomiaren garapenaren gaineko efektua, askatasunez ekiteko aukera emanez gero, oinarrizko segurtasuna garatzen lagunduko baitiogu, pertsona moduan garatu aldera (Falk, 2009).

Hori dela eta, umetxoa jaiotzetik aktiboa dela frogatzen da, hein handi batean, bere bitzita aktibo horren arrakastarako ezinbestekoak diren bi baldintza betetzen baitira: umetxoa bere mugimenduetan libre izatea eta bere garapen aldiarekin bat datorren jardueraren bat burutzeko aukera bere esku izatea (Tardos eta Szanto, 2000).

Azken alderdi horrekin jarraituz, hain zuzen, kontuan hartzekoa da umetxoaren esploraziorako jarrera bultzatzen duen egoera ematen den edo ez bere eguneroko *testuinguruaren ezaugarrien* arabera izango dela. Tardos eta Szanto-k (2000) aipatutako moduan “el bebé que en su entorno habitual tiene la oportunidad de reencontrar día tras día juguetes y objetos familiares dispone de la posibilidad de ejercer y desarrollar sus competencias” (7. or).

Beraz, umetxoak ikerketarako grina eta ikasteko gogoia jaiotzetik dituela kontuan harturik eta bere gaitasunak garatzearen garrantzia argia dela jakinda, grabaketen partaidearen ingurunearen egokitasuna agerian geratu da, Pikler-Lóczy metodologiak aipatzen dituen jarduerak agertzen direlako umetxoaren portaeran. Izan ere, gelan aurki zitezkeen objektuak bere jarduera sensoriomotorraren pizgarri izan dira eta bertako lurrazal gogorra eta gelaren barne zeuden hesiak haren mugimendua erraztu eta zutitze prozesua gertatzea eragin dute.

Azken finean, haren garapenaren pausoak ematea bermatu du testuinguru horrek, egunez egun gero eta abilago bihurtu eta inguruko objektuen ezaugarriak ezagutzen joan delako. Baina, horrez gain, garrantzitsuagoa den zerbait eragin du ingurugiro horrek: umetxoa adi egoten ikasi du eta bere gaitasunak hobetuz joan da, haren ekintzen efektuekin ikasiz. Horren eraginik garrantzitsuena, zera da, *ikasten ikasi* ahal duela (Tardos eta Szanto, 2000), bere kontura eta libreki egindako aurkikuntzek haren jakintza eraikiko dutelako eta modu autonomoan ikasteko aukera jarri delako haren esku.

Izan ere, umearen jarreraren hauteman daitekeen lasaitasuna, umore ona eta jolasteko gogoia haur-eskolaren hezkuntza eredu eta hezitzaileen lanaren menpe egongo dira (Tardos, 2014), testuinguruan efektua izango duten faktoreak izanik horiek.

Bestetik, *jarduera sentsorimotorra* denbora gehien hartzen duen jarduera eta egun gehienetan besteen gainetik dagoen ekintza mota bada ere, egun batzuetan bestelako kategoriak daude horren aurretik, lehenengo, bosgarren eta zortzigarren egunetan gertatzen den bezala.

Horrekin batera, ekintzaren inguruan aztertutako lau kategorietako bakoitzak hartzen duen denboraren inguruan ere asko hausnartu daiteke. Izan ere, bakoitzak hartzen duen tartearen arteko harremana *egunaren arabera* da. Horrela, jarduera sentsorimotorreko tartearak besteak baino gainetik gailentzen diren egunak egon badaude ere (seigarren, bederatzigarren edo hamaikagarren egunetan gertatzen den bezala) beste batzuetan lau kategorien artean modu berdintsuago batean banatzen da denbora, hala nola, bigarren, hirugarren edo hamabigarren egunetan.

Hau horrela izateak umetxoaren ikaste prozesuaren inguruan gogoeta egitera eramaten gaitu. Hain zuzen, ikasten ikasiko duela ziurtatzeko, testuinguruarekin batera autonomiaz jokatzearen garrantzia aipatzekoa da, hau da, umeak *bere denbora kudeatzeko askatasuna* izatea. Askatasunez jolasten duenean, bere jarduera erritmoa erregulatzeko gai da umetxoa, batetik bestera igarotzen da, bere interesa pizturik mantenduz eta, aldi berean, ekintza momentuak atsedean uneekin tartekatuz (Tardos eta David, 1991). Hori dela eta, egun bakoitzean umetxoak aukera izan du bere unean-uneo premia edo desioei erantzunez jokatzeko eta hauek kontuan harturik bere denbora antolatzeko.

Behin ekintzaren inguruko hausnarketa plazaratuta, arretari dagokionean, egindako analisisian ikus daitekeenez (4. eta 5. grafikoak), umetxoak bere inguruko jardueretik arreta mantentzen du eta aurrera eramaten duen *ekintzaren ezaugarrien araberako interesa* erakusten du. Esate baterako, modu errepikakorrean eta objektu berdinetatik jolasten duenean, horien ezaugarrien inguruko aurkikuntzak egingo ditu pixkanaka: objektua berdina dela ikasiko du, bai hori guztiz ikusita zein objektua angelu desberdinetatik ikusten duenean ere (Kallo eta Balog, 2013).

Hori horrela izanda, ezagunagoak dituen materialekin dabilenean edo guztiz menperatzen duen jarduera batean murgilduta dagoenean, bere arreta leku batetik bestera mugitzeko erraztasun handiagoa duela ikusi da. Adibidez, gelan topa zezakeen pote bat hartu eta lurretik arrastaka mugitzen zuenean, bere begirada askotan inguruan ematen ari ziren beste gertakarietara mugitzen zuela ikus zitekeen, negarrez zegoen umetxo batengana, mugitzen ari zen hezitzailearengana edo hurbil zegoen umeren baten jarduerara, batik bat.

Aldiz, ikerkuntza momentuetan murgilduta zegoenean edo hainbeste menperatzen ez zuen ekintza bat burutzen ari zen uneetan kontzentratuago zegoela argi ikusten zen. Bereziki esanguratsua da materialen ezaugarrietatik erakusten zuen interesa; izan ere, egun konkretu batean berarentzat ezezaguna zen material berria heldu zen gelara eta, egun horretan, aurkikuntza asko egin zituela esan daiteke, ondorioz, bere jardueretik erabateko arreta erakutsi zuelarik. Konkretuki, hamargarren egunean eman zen gertakari hori grafikoan argi islatzen da, egun horretan kontzentratutako arreta erakutsi zuen denbora grabaketa egunen artean luzeenetako bat da eta.

Hori dela eta, bai bere buruarengan duen konfiantza zein inguruan topatzen duen materiala manipulatu burutu ahal izango zituen erronkak erabakigarriak izan dira aurrera eramango zuen ekintzaretatik adierazitako arreta mailari dagokionean. Anna Tardos-ek (2010) *The Researching Infant* artikuluan azaldutako moduan:

Inork ez badio esaten zertara jolastu behar duen edo inork ez badu bere arreta gidatzen ezta desbideratzen ere, umetxoa objektu batekin arituko da bere intereseko den artean. Bere saiakerak gelditu eta ondoren berriro has daiteke. Jarduera mota batetik bestera igaro daiteke: ingurunea behatu, manipulatu, jarduera lokomotorra abiarazi. Jarduera libreko momentuetan zehar, arreta mota desberdinen arteko aldaketa behatu daiteke umearen lehenengo urtean zehar. (13. or)

Idea honek ikerketa lan honetan zehar izandako abiapuntuarekin zein lortutako emaitzekin lotura zuzena du. Konkreteki, aurreko atalean egindako datuen analisi sakonean argi ikusten da ume txikia badela gai bere interesak jarraituz jardueraz aldatzeko eta, aldi berean, jardueraren ezaugarrien araberako arreta mantentzeko.

Jolas librean zehar ager daitezkeen etengabeko zalantza momentuek eta bere esperimentaziorako grinak umearen izaera eta bere ekintzen ezaugarriak definituko dituzte. Ondorioak ateratzea, gertaerak aurreikustea, gogoratzea eta objektuen arteko, bere eta beste objektuen arteko edo objektu eta beste pertsonen arteko harremanak finkatzea umetxoaren esplorazio eta manipulazio momentuen ondorio diren prozesu kognitiboek eragindakoak dira (Tardos, 2010).

5. Ondorioak

5.1. Lanarekin lotutakoa

Aurretik aurkeztutako lanaren abiapuntu izandako behaketak, haurtzaroaren gaitasunaren ideia nahiko argia eman eta emaitza oso esanguratsuak eskaini dituela esan daiteke. Umearen gertakarietan oinarrituta ateratako emaitzak kontuan hartu direnez, hasieran ezarritako helburua –umetxoen berezko gaitasunak goraiapatzea– erabat lortu ahal izan da, aurkeztu berri den eztabaida izanik horren froga.

Ikusi ahal izan den bezala, umetxoek, jaiotzetik dute inizatiba hartzeko eta bai haien zaintzaz arduratzen diren helduekin zein ingurune fisikoarekin harreman eraginkorrak ezartzeko gaitasuna: umea pentsatzen zena baino askoz gehiago lortzeko gai da bere kabuz (Pikler, 1979).

Harritzekoa da ume txikia itxuraz *bakarrik* dagoen une horien emankortasuna, haren gauzetan kontzentratzeko eta, ondorioz, mugitu eta jolasteko era berriak bilatu eta modu errepikakorrean aurrera eramateko aukera ematen zaionean (Borbély, 2016).

Umetxoa bere kabuz aritzeko kapaz dela behin frogatuz gero, horren alde egiteko baldintza egokienak eskaintzea izango litzateke inguruneko helduen egitekoa, bai testuingurua prestatzeari dagokionean zein esku-hartze zuzenak gauzatzerakoan.

Grabaketak egin ziren egunetan, honen protagonista izan den umea bere ekintzetan nola murgiltzen zen behatu bitartean, kanpo faktoreek horretan zuten efektua ikusi ahal izan zen. Esate baterako, umetxoak arreta iraunkorra erakusten zuen momentuetan, dagoeneko kontrolatzen zituen mugimenduak burutzean, kanpoko zarata edo bestelako aldaketek horretan guztiz sartzea eragozten zioten. Hori horrela izanik, gure eguneroko praktikan zehaztasun txikiena ere zaintzearen premia argi geratzen da. Horrela, Pikler-Lóczy pedagogiari men eginez, xehetasunei garrantzia eman eta hauek kontuan hartzeko garrantzia azpimarratzen da, horiek behar den bezala zaintzen direnean umeek segurtasun, autonomia eta konfiantza handiagoa garatuko baitute (Herrán eta Godall, 2016). Detaileak zaintzeak duen premiaren froga da, esate baterako, grabaketa egunetan hezitzaileen arteko interakzioek edo gehiegizko mugimenduek umetxoaren jolasa eta horrekiko zuen arretan eragina zutela ikustea.

Hortaz, hezitzaile bezala ume txikiaren jolasaren etapa desberdinen jarraipena egin eta hauek emateko beharrezkoak diren baldintzak eskaintzea da gure ardura. Azken finean, Emmi Pikler-ek (1979) baieztatu zuen bezala, “umea gai sentitzea, haren berezko gaitasunekiko konfiantza garatzea eguneroko esperientzien menpe dago; horrek, bere jokatzeko eran eta etorkizuneko izaeran eragina izango du” (2. or).

Hezitzaileok umetxoen egunerokotasunean eta haien bizitzako lehenengo bizipen horietan eragina izango dugunez, haien gaitasunekiko konfiantza sortzeko beharrezkoa den segurtasun afektiboa eskaini beharko diegu, bai ingurunearen baldintzak zein umetxoekin dugun harremana izanik horren ziurtagiri. Judit Falk-en (1968) hitzei erreferentzia eginez “la constante más importante es la relación personal que une al niño con las principales figuras de su entorno [...]. Esta continuidad posibilita un estado afectivo que le da ganas de ser activo, de interesarse por el mundo y de esforzarse en conocerlo” (1. or).

Honen harira eta behaketa asteetan zehar eman ziren momentu desberdinetan zentratuz, horren adierazle esanguratsua izan zen bere erreferentziazko hezitzailea etorri ez zen egun bateko umetxoaren egoera. Izan ere, haur-eskolako ume bakoitzak, hezitzaile bat du erreferentzia, bera izango delarik kalitatezko zaintzak eskainiko dizkiona, egunero-egunero horretarako zorrotz prestatutako ingurunean (Herrán, 2014). Konkretuki, egun horretan umetxoa urduri eta galduta zegoen, gelan gustura

sentitzen ariko ez balitz moduan. Nahiko larri egon zen goiz osoan zehar eta, ondorioz, bere jardueran ez zen guztiz murgiltzen ari.

Horrek, umearen esploratzeko grina pizteko eta, ondorioz, bere jardueran murgildu ahal izateko hezitzailearekin duen harreman orekatuaren garrantzia erakusten du. 0-3 urte tartean, hortaz, oraindik ez gara hezkuntzaren inguruan ariko; ziklo honetako gakoak, aldiz, gorputza, erlazioa eta barne-segurtasuna dira (González eta Tapia, 2009). Horien bitartez umearen psikismoaren zimentua sortuko da, bere egonkortasun emozionala bermatuko dugu, ikertu eta ikasteko interesa sustatuko dugu harengan.

Hain zuzen ere, Judit Falk-ek (1980) baieztatu zuen moduan: “jarduera autonomoarekiko interesa ez da existitzen segurtasun afektiboko sentimendurik gabe; segurtasun horren oinarria, haur-eskolako pertsona batekiko harreman afektibo pribilegiatuak eta denboran luzatzen denak bermatzen du” (895. or). Bizitza osorako onuren inguruan ari garela kontuan harturik, helburu moduan jarritako Haur Hezkuntzako lehen zikloaren garrantzia argi geratzen da.

Beraz, hezitzailearen esku-hartze zuzenek umetxoaren ongizate egoera bermatzea helburu dutela kontuan hartzekoa da; hori dela eta, modu orokorrean atera daitekeen ondorioa zera da: umetxoak haren behar-izanak aseturik dituela bermatuz gero eta erreferentziatzko helduarekin duen harremanak beharrezko segurtasuna ematen dionean, bere kontura eta libreki aritu daiteke ingurunearekiko elkarrekintzan. Horrela, ekintzaren analisiaren parte izan diren aztergaien arteko lotura argia da, umetxoaren ongizatearen alde egin baitute zaintzek eta, ondorioz, jarduera sensoriomotorrari ekiteko, lekualdatzeko edo ingurunea behatzeko prest egon da umea.

Behaketa egin bitartean burutu zituen jarduerari dagokienez, bere bizitzako lehen 3 urteetan kokatzen garenez, horien bidez munduaren gaineko ezagutza sortzen doala esan daiteke, ahalik eta berrienak diren aurkikuntzekiko arreta eta interes handiagoa erakutsiko duelarik dagoeneko menderatzen dituen ekintzekiko baino. Honek, ume txikiaren ekintza ohikoena izan den jarduera sensoriomotorraren garrantziaz ohartarazten gaitu. Halaber, ikerketa txiki honen bi aztergaiak izan diren ekintza eta arretaren arteko lotura ere erakusten da, berriak diren jarduera horiekiko izango baitu umeak arreta gehien. Are gehiago, jarduera batean zeharo murgilduta dagoen umetxoa,

etorkizunerako baliagarriak izango zaizkion aurkikuntzak egiten ariko da, bere interesezko adierazpenak argi uzten duen bezala:

La expresión atenta del bebé durante estos juegos confirma que esta relación con el objeto suscita pensamientos enraizados de alguna manera en la infinita variedad del sutil juego manipulativo y van a inscribirse en el psiquismo. Al mismo tiempo, este juego es el modo de expresión y el terreno de experimentación de las emociones del niño, con un constante ir y venir entre ambos, pensamiento y emoción, en el que se elaboran los sistemas de representación. (Tardos eta David, 1991, 16. or)

Azken batean, umetxoak burutzen dituen jardueren garrantzia momentuko efektua baino haratago doala argi geratzen da. Unean uneko efektuaz gain, jarduera sensoriomotorraren interesaren bitartez, umeei haien garapen motor harmoniatua sustatuko dituzten esperientziak bilduko dituzte eta garapen intelektual egoki baten oinarria eraikiz joango dira egoera desberdinen esperimentazioari esker (David eta Appell, 2010).

Lortutakoa kontuan harturik eta etorkizunera begira, ikerketa xume hau aberastu ahal izateko zera proposatuko nuke: umearen ekintza eta arretaren eragina eta sailkapena luzaroan jarraitu, horien eboluzioa aztertu eta umetxoaren jarreraren garapena hurbiletik behatzea.

Era berean, ikerketa txiki honetan subjektu bakarra behatu bada ere, ikerketa sakonagoa martxan jartzekotan partaide gehiago kontuan hartzea baliagarria litzateke, umetxo honengan aztertutakoa modu orokorrean ematen den ikusteko.

Horrela, baldintza egokiak izan dituzten eta manipulatzeko interesa erakutsi duten umetxoen jarraipena eginez, hasierako jarrera horrek ondorengo izaeran zer nolako efektu duen jakin ahal izango genuke, ume txikiaren berezko gaitasunak behar den bezala sustatzearen luzaroko arrakastaren froga hartzeko xedeaz.

Hori guztia, nola ez, arretaren analisi hurbila eginez lortuko litzateke, umetxoa ziur eta gustura sentitzen denean besterik ez duelako haren ekintzaren benetako interesa izango eta, horrekin batera, kontzentrazio momentu horiek izango baitira aurkikuntza aberasgarriak egiteko une aproposenak.

5.2. Pertsonalak

Ikuspuntu pertsonalago batetik, lan honek asko eman didala esango nuke. Hasieratik izan dut umeengan guztizko konfiantza, Haur Hezkuntza Graduan zehar umea abiapuntu izan duten irakasle edo ikasgai gutxi baina interesgarriek eman didaten perspektibari esker. Baina, umetxoa hurbiletik behatu, bere jarduera aztertu eta horretan oinarritutako ikerketa txiki bat egiteko aukera izateak aurretik buruan nuen frogatzeko eta horren inguruan askoz gehiago ikasteko balio izan dit.

Egia da hasieran nire intereskoa zen gaien zentratzea ezinezkoa izan nuela. Izan ere, umeen lehen urteetan hezitzaileok euren emozioak erregulatzerako orduan eta hauek kudeatzen laguntzerakoan dugun rola zen nik ikertu nahi nuen. Baina, horrelako azterketa sakonegia zenez eta, ziurrenik, denbora luzeagoz egin beharreko ikerketa bat izango zenez horretarako aproposena, gaiaz aldatzeko beharrean ikusi nuen nire burua. Pixkanaka, aukera desberdinak otu eta beste batzuk proposatu zitzaizkidan eta, azken batean, ume txikiaren arretaren inguruan aritzea erabaki nuen.

Hasiera batean, eta guztiz zintzoa izanez, ez nuen guztiz argi ikusten honek nire helburua zen ume txikiaren gaitasunez ohartzeko balioko zitzaidan. Baina, prozesua bukaturik eta emaitzak ikusita, aurrera eramandako ikerketa neure buruan nuen ideia baieztatzeko aproposa izan dela esango nuke. Hain zuzen, lan honek nigan ekarri duen efektu garrantzitsuena haurtzaroaren inguruko ikusmolde egokia eman izana da. Umetxoa izan da uneoro lanaren erdigune, berarengan jarri da ikuspuntua eta haren gaitasunak izan dira abiapuntu. Horrela, haurtzaroaren lehen urteen garrantzia eta etorkizuneko bizitzan duten eragina argi ikusi dut, honen inguruan nuen ustea indartuz.

Erreferentziako heldu batekin harreman egonkorra eta ziurra duen umea gustura sentitu, harmonian hazi eta autorregulatu egiten da. Beraren gaitasun, gustu eta interesetara zehatz-mehatz egokitutako ingurune fisiko eta proaktiboa eta arretatsua da, jarduteko eta mugitzeko askatasun osoa ahalbidetzen zaiolarik. (Herrán, 2014, 80. or)

Perspektiba aldatzeak, beraz, helduaren nahietan zentratu ordez, gure fokua umeak behar duen horretan jartzea dakar, jolas librerako testuingurua prestatuz, deskantsu momentuak eskainiz eta behar duen hori emanez momentu bakoitzean. Hori eginez eta, garrantzitsuena dena, umetxoan sinetsiz, luzaroan ikusiko den arrakastazko bizitza bermatuko diogu.

6. Erreferentziak

- Anguera, M. T. (2003). La observación. In C. Moreno Rosset. (Ed.), *Evaluación psicológica. Concepto, proceso y aplicación de las áreas del desarrollo y de la inteligencia* (271-308). Madril: Sanz y Torres.
- Borbély, S. (2016). El dilema de la autonomía y el apego en las familias de hoy. Actualización del eterno debate sobre los factores del desarrollo del niño desde la perspectiva pikleriana. *RELAdEI (Revista Latinoamericana de Educación Infantil)*, 5(3), 54–61.
- David, M. & Appell, G. (2010). *Lóczy, una insólita atención personal*. Bartzelona: Octaedro.
- Falk, J. (1968). A nevelés folyamatoságának kérdései a csecsemőotthonban. *Óvodai nevelés*, 21(7-8), 285-290.
- Falk, J. (1980). Le fait conscient au lieu de l'instinctivité: Remplacement efficace de la relation Mère-enfant dans la pouponnière. *Reproduction, nutrition, development*, 20(3B), 891-895.
- Falk, J. (2009). Los fundamentos de una verdadera autonomía. *Infancia*, 116, 22-31.
- González, F. & Tapia, X. (2009). Reflexiones en torno a la escolarización generalizada de los niños de dos años. *Cuadernos de Psiquiatría y Psicoterapia del Niño y del Adolescente*, 48, 177-186.
- Herrán, E. & Godall, T. (2016). La pedagogía Pikler-Lóczy de educación infantil. *RELAdEI (Revista Latinoamericana de Educación Infantil)*, 5(3), 9-11.
- Herrán, E. (2005). *Análisis de la psicomotricidad en el inicio de la escolarización: un estudio psicogenético y observacional del salto durante el tercer año de vida*. Bilbo: EHU Argitalpen Zerbitzua.
- Herrán, E. (2014). Pikler-Lóczy eredua: zaintzea denean hezkuntzaren abiapuntua. *TANTAK*, 26(2), 77-100.
- Kallo, E. & Balog, G. (2013). *Los orígenes del juego libre*. Budapest: Magyarországi Pikler-Lóczy Társaság.
- Pikler, E. (1979). A Csecsemő kompetenciája. *Magyar Pediáter*, 13(2), 227-223.
- Pikler-Lóczy Society for Young Children Hungary (Ekoizlea) eta Tardos, A. & Appel, G. (Egileak) (1990). *A baby's attention at play* [DVD]. Hungaria: Lóczy Institute.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Tardos, A. & David, M. (1991). De la valeur de l'activité libre du bébé dans l'élaboration du self. *Devenir*, 3(4), 9-33.

Tardos, A. & Szanto-Feder, A. (2000). ¿Qué es la autonomía desde la primera edad? *Infancia*, 62, 5-11.

Tardos, A. (2010). The researching infant. *The Signal*, 18(3-4), 9-14.

Tardos, A. (2014). *El adulto y el juego del niño*. Bartzelona: Octaedro.

Wallon, H. (1980). El papel del movimiento. La importancia del movimiento en el desarrollo psicológico del niño. In J. Palacios. (Ed.), *Psicología del niño: una comprensión dialéctica del desarrollo infantil* (128-132). Madril: Pablo del Río.